



Idazle lazkaotarraren “Ilargi-kutsadura” proiektua saritu du epaimahaiak aurkeztutako 12 lanen artean, tartean bat Argentinatik iritsia

Iazko irabazleak, Lizar Begoñak, liburua amaitu du eta sariaren bigarren zatia jaso du. Datorren udaberrian aurkeztuko da

Lazkaotik dator aurtengo Igartza Literatur-sorkuntza Beka irabazi duen eleberri proiektua. 33 urteko Irati Irizar, ikasketaz eta lanbidez ingeniaria, irakasle eta aholkulari lanetan jardundakoa da. Garaikurra eta 6.000 euroko sariaren erdia jaso ditu Igartzako jauregian burututako sari emate ekitaldian. Orain, urte eta erdiko epea izango du proiektua nobela bihurtzeko.

Hogeita seigarren edizioa bete du Beasaingo Udalak, Elkar argitaletxeak eta CAF enpresak, idazle gazteak laguntzeko antolatzen duten beka honek. Igartzako jauregian elkartu ziren sari emate ekitaldian irabazlea zein hiru erakundeetako ordezkariak; Beasaingo alkatea Leire Artola, Elkar argitaletxeko Xabier Mendiguren eta CAFeko

euskara arduraduna Bianditz Iraola. Ekitaldian ere, Lizar Begoña Madariaga iazko irabazleak, behin bere liburua amaituta, sariari dagokion bigarren zatia jaso du. Itzalkinak eguzkitan nobela datorren udaberrian aurkeztuko da toki berean.

Beasaingo alkatea den Leire Artolaren esanetan, Igartza Literatura Beka beasaindarrontzat berezia da. Aurrera eramaten dituzten ekimenen artean harribitxia. Beasain bere mugetatik haratago ezagutzera eman eta mapan kokatzen duelako eta erreferente delako euskarazko gazteen literaturaren munduan. Horren adibide aurten jasotako lanak; guztira 12, 8 Gipuzkoatik (3 Goierritik), 3 Bizkaiatik eta 1 Argentinatik. Generoari dagokionez 5 emakumezkoak izan dira eta 7 gizonezkoak. Bianditz Iraolak CAFen izenean egilea zoriontzeaz gain bitxikeria moduan irabazlea CAFen lanean aritutakoa izatea nabarmendu du eta ilusioa pizten duen lana dela ere azpimarratu du.

Irati Jimenez Uriartek, Garazi Kamio Anduagak eta Aintzane Usandizaga Lopezek osatutako epaimahaiak erabaki zuen lazkaotarraren proiektua saritzea. Egileak azaldu duenez, liburu bihurtuko den proiektuak Patricio Guzman zinemagile txiletarraren “Nostalgia de la luz” dokumentala izan zuen sorrera puntu. Atacamako basamortuan dago kokatua dokumentala non izar behatzaileak eta diktaduran desagerrarazitako hezur bilatzaileak batzen diren. Biak dute antzekotasuna, batzuk zerura begira, besteak lurrera. Betiere iragana jopuntu. Abiapuntu horretatik, haiek Atacama duten bezala Euskal Herrian Bardeak ditugu, izarrak behatzeko toki aproposa baina era berean faxisten sarraski toki ezaguna 36ko gerran. Basamortu eszenatoki horretan eraiki du lazkaotarrak kontakizuna. Western modernotzat kalifikatu du lana.

Idazle gazteen sorkuntza-lana saritzea

Igartza Literatura beka saria Beasaingo Udalak idazle berrien sormena bultzatzeko helburuarekin sortu zuen. Baldintza nagusiak, 35 urte bete gabe izatea, aurretik lan argitaraturik izatekoetan helduentzako bi liburu baino ez izatea eta lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izatea dira.

Orain arteko irabazleak:

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
TUBABU	I. ^a		1994	Jon Arretxe Perez
CONNEMARA GURE I. beka		1998	2000	Julen Gabiria
BIHOTZETAN				Lara
EGUN DENAK EZ II.beka		1999	2001	Xabier
DIRA BERTIN				Etxeberria

Irati Irizar da XXVI. Igartza Literatura Bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:35

Argitaratua: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:04

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
KORAPILOAK	II. bekaacesit	1999	2001	Garro Jasone Osoro Igartua
ORTZADARRA SUTAN	III.beka	2000	2002	Fernando Morillo Grande
VAN´T HOFFEN ILEA	IV.beka	2001	2003	Unai Elorriaga Lopez de Letona
HAN GOITIK ITSASOA IKUSTEN DA KARONTE	V.beka VI.beka	2002 2003	2004 2005	Julen Gabiria Lara Asel Luzarraga Zarrabeitia
AMAREN ESKUAK	VII.beka	2004	2006	Karmele Jaio Eiguren
LILE	VII. bekaacesit	2004	2006	Peru Magdalena Arriaga
AULKI BAT ELURRETAN ERO	VIII.beka IX.beka	2005 2006	2007 2008	Uxue Alberdi Estibaritz Jon Martin Etxebeste
HABITAT	X.beka	2007	2009	Katixa Agirre Miguellez
NORA EZ DAKIZUN HORI KATU JENDEA	X. bekaacesit XI.beka	2007 2008	2009 2010	Irati Jimenez Uriarte Eider Rodriguez Martin
MEA CULPA	XII.beka	2009	2011	Uxue Apaolaza Larrea
BESTE NORBAITEN ZAPATAK GELTOKIAK EDO HELDUTA ENTZUTEKO ABESTIAK ERRAIAK	XIII.beka XIV.beka XV.beka	2010 2011 2012	2012 2013 2014	Garazi Kamio Anduaga Goiatz Labandibar Arbelaitz Danele Sarriugarte Mochales
EZ TIRO EGIN ANBULANTZIEI HAUTS HAJETATIK NOLA HELDU NAIZ NI	XVI.beka XVII.beka XVIII.beka	2013 2014 2015	2015 2016 2017	Mikel Ayllon Corral Unai Villena Camarero Kattalin Miner Perez

Irati Irizar da XXVI. Igartza Literatura Bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:35

Argitaratua: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:04

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
HONAINO ZALDI MAMARROAXIX.beka		2016	2018	Ekaitz Goienetxea Cereceda
BASA	XX.beka	2017	2019	Miren Amuriza Plaza
ZENDABALITZ	XXI.beka	2018	2020	Erika Elizari Salvador
HERRIAK EZ DU BARKATUKO	XXII.beka	2019	2021	Irati Goikoetxea Asurabarrena
EZ ERRAN INOR	XXIII.beka	2020	2022	Maddi Ane Txoperena Iribarren
ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN	XXIV.beka	2021	2023	Olatz Mitxelena Larreta
ITZALKIAK EGUZKITAN	XXV.beka	2022	2024	Lizar Begoña Madariaga
ILARGI- KUTSADURA	XXVI.beka	2023	2025	Irati Irizar Alvarez

Irati Irizar da XXVI. Igartza Literatura Bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:35

Argitaratua: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:04



Irati Irizar Alvarez garaikurrarekin

Irati Irizar da XXVI. Igartza Literatura Bekaren irabazlea

Azken eguneratzea: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:35

Argitaratua: Osteguna, 14 Iraila 2023 14:04



Lizar Begoña Madariaga iazko sariaren bigarren zatia jasotzen

